

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 263. zenbakia. 2018ko urtarrila



**Mallabia Motorsport Taldea  
ziztu bizian**

**ONAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 ☎ 943 17 47 44

**irale**  
 Hortz Klinika  
 Clínica Dental  
 C/ Zeharkalea, 8  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 Tel: 943 17 71 34

fisioterapia  
 eta osteopátia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika  
 Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS  
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hortz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
 Hortz klinika berri eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina García Pérez  
 · Elikagai biologikoak  
 · Terapia naturalak  
 · Naturopatarekin kontsultak  
 · Masajeak  
 · Dietistarekin kontsultak  
 · Kosmetika biologikoa  
 Belar-denda eta dietetika  
 Zeharkale 12 behea esk. - ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa Elkarte  
Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Mallabia Motorsport Taldea.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Ez dok hiru,  
4kote taldea,  
Txindurri Dantza Taldea,  
Estibalitz González,  
San Pelayo ikastetxea,  
Amaia Araiztegi,  
Valentin Mugarza,  
Danobatgroup,  
Mallabia Motorsport Taldea,  
Juan Carlos Martin  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Piedi  
Eizagirre eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Lehenengotxu hori (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Lehenengotxu hori  
punta bihatz hori,  
beste guztien artian  
txikiena dok hori.

La ra la la ra  
la ra la ra la ra la  
la ra la la ra  
la ra la ra la ra.

Bigarrentxu hori  
punta bihatz hori,  
beste guztien artian  
alperrena dok hori.

Hirugarrentxu hori  
punta bihatz hori,  
beste guztien artian  
luziena dok hori.

Laugarrentxu hori  
punta bihatz hori,  
beste guztien artian  
bizkorrena dok hori.

Bostgarrentxu hori  
punta bihatz hori,  
beste guztien artian  
potoluena dok hori.



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4  
Ane Arrizabalaga (Polonia)

ELKARRIZKETA .....5-7  
Amaia Araitzegei

MALLABIAN ZER? .....8-9  
Iratxe Uribelarrea eta Igone Amesti,  
'4kote' taldean abeslari

ERMUAN ZER? .....10  
Patxo Telleria, 'Ez dok hiru'

KIROLAK ..... 12-13  
Mallabia Motorsport Taldea

ERMUAN ZER? .....14-15  
5 urte Tasio eta Sabinorekin

BOTEPRONTOAN .....16  
Alberto Arginzoniz

MOTZEAN .....17  
Hartza eta koko jantziak otsailaren 9an  
IRITZIA .....18

Eurengan zentratuta zaintzen ditugu perso-  
na nagusiak?

ESKOLEN TXOKOA .....19  
San Pelayo ikastetxeko albisteak

ANTZINAKOAK.....20  
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK.....21  
Saldu, erosi edo agurtu

OTSAILEKO AGENDA.. .22

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia  
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Ane Arrizabalaga**

Ane Arrizabalagak 21 urte ditu eta Leonen egin ditu ingeleseko ikasketak, baina graduko azkeneko urtea Poloniako herri txiki batean ari da burutzen, Bielsko-Bialan. Pozik dago bertan, Varsoviatik gertu, eta hainbat herri bisitatu ditu jada: Varsovia, Budapest eta abar.

*-Zer dela eta joan zinen Leonera ikasketak burutzera?*

Selektibitatea egin ostean notak ez zidan eman Gasteizen gradua egiteko, beraz, Leonera joan nintzen, eta oso pozik nago egia esan.

*-Eta zerk bultzatu zintuen Erasmusera joatera?*

Leoneko unibertsitatean ikasle gehienak joan izan



Bielsko-Biala,  
Polonia

dira, eta eurek bultzatuta esperientzia hau bizitzeko gogoarekin apuntatu nintzen. Polonian hartu ninduten bertan urtebete egiteko.

*-Lagunak? Leonen, Ermuan eta Polonian...*

Ermuan koadrila daukat, betiko lagunak; Leonen, berriz, 4 urtetan zehar egin ditudan lagunak daude, eta eurekin bizi izan dudana betirako eramango dut nirekin. Polonian egindakoa urtebete-

ko gauza izan da soilik, eta batzuekin oso ondo moldatu naiz, baina beste batzuekin ez.

*-Nolakoa da bertako jendea?*

Bertako jendea hotza da, klasean zerbait galdetuz gero, monosilaboekin erantzuten didate. Ez dakit zein ote den arrazoia, baina... Oso triste bizi dira. Dena polonieraz egiten dute eta nik ez dut ulertzen. Adibidez, ez dut ulertzen Unibertsitateko

plataformako ezer, eta galdetzen dudanean monosilaboekin erantzuten didate; beraz, berdin galditzen naiz.

*-Azterketak? Erasmuseko bizitza nolakoa da?*

Azterketak baditut eta ikasi behar dut, noski. Mi-to bat da Erasmusera zozazenean ez duzula ezer egiten, ikasi behar da eta klasera joan behar zara, hemen bezala.

Amaitasuna  
Amaitasuna  
Amaitasuna

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



**Amaia Araiztegi, pilotaria::**

**“Aurrera egiteko bide bat badago,  
lehengo raketistek ezarri zutena da”**

**Lauzpabost alditan entrenatu, Kolonbiako Mundialera joan eta garaipena lortu zuen One wall modalitatean Amaia Araiztegi mallabitarrak Patri Espinar usansolotarrarekin. Frontisean txaparik gabe jokutzen da One Wallean eta hemendik kanpo gehiago jokatu omen da, Amaiaren berbetan. Frontoiko neska, bizitza osoan aritu da eskuz, palarekin zein raketarekin... eta maila handiarekin gainera. Hor dago txapela! Orain trinketean zentratu nahi du, baina raketisten belaunaldi berriaren ikur izateko lanean ari da gogo eta ilusio handiarekin.**

**e|karrizketa**

- **Munduko txapeliduna! Ez dira hitz txikiak...**

Diru aldetik ez dut ezer berririk nabaritu bada! (barreak) Ez, baina demasa da! Esperimentzia zoragarria bizi izan nuen Kolonbian. Arraroa da Munduko txapeliduna naizela entzutea. Jendeak esaten dit, baina nik trankil hartzen dut. Egia esan oso gauza polita da.

- **Nola joan zen txapelideta?**

Pixka bat zoroa izan da dena. Izan ere, Kolonbian dena da pixka bat zoroa (barreak). Pentsa, mutilek partidu bat jokatu behar zuten eta antolatzailerek aurreko egunean bota zuten galipota lurrean, lerroak marrastu eta kitto, jokatzera! Egun batetik bestera. Itzelak dira! Gure partiduak ere, ordu baterako zehaztu eta bi ordu atzeratzen ziren. "Ahora mismo" esaten ziguten, eta auskalo noiz zen hori. Nik zortzi partidu jokatu nituen hiru egunetan, baina nirekin bikote moduan aritu zen Patri Espinarrrek hamaika jokatu zituen, bakarka eta bikoteka aritu garrelako. Besoek nahiko ondo aguantatu zuten, baina lepo eta hanketatik lur jota amaitu nuen. Patrik bihurritua izan zuen, baina aurrera egin zuen. Baliabide aldetik talde pobrea ginela esaten genuen, baina oso burugorrrak. Talde guztiek fisioterapeuta bat zeukaten, guk ezik. Arropa aldetik ere, kamiseta gorri eta urdin bana lortu eta aurrera! Partidua jokatu eta arropa aireztatzen genuen. Amaitzean bel-

durra ematen zuen maletan sartzea (barreak).

- **Zein herrialdeetako taldeen aurka jokatu zenuten?**

Hamasei herrialde aritu ginen: Holanda, Bolivia, Kolonbia, Ekuador... One Wall jokatzeari ohikoa da hainbat herrialdeetan; gurean jokatzeari arraroa. Etxean ere ez zuten ezagutzen zein modalitate zen hori. Gu ginen arrotzak Esku Pilotako Mundialean.

- **Bada hemen One Wall hain ezezaguna bada, meritu handia dauka Munduko Txapelideta lortzeko!**

Gure jokatzeko moduarengatik irabazi dugula uste dut, ezberdina delako. Hemen palan edo edozein modalitatean jokatzeko duenak antzera jokatzen du, baina beste herrialdeetan beste modu batean jotzen diote pilotari. Asko makurtzen dira eta albotik jotzen diote pilotari, demaseko zartada emanek. One Wallen ez dago txapirik eta arraseko tiroak egiten saiatu behar zara. Frontoiko jendea izanik, kontrol gehiago daukagula pentsatzen dut. Goitik badator, pilotari eman eta paretan sartzen dugu, eta behetik badator, berdin. Eurak, ordea, ez doaz airez. "Euskaldun hauek zoraturik daude!", pentsatuko zuten. Beste modu horretan jokatzeko nahastu zituen arerioak.

- **Nolako finala jokatu zenuten?**

Asko kostatu zitzaigun irabaztea. One Wallen bi set jokatzen dira lehenik, 12 tanto-

## "Ondo irten zitzaigun dena, baina ez genuen espero"

ra, eta berdinketarik balego, berdinketa haustea jokatzen da zazpita. Bada, lehenengo seta amaitu genuenean pozik geunden, irabazi genuelako, baina handik bost minutura erreklamatzeko hasi ziren, azken tantoan nik jaurtitako pilotak Patri jo zuela esanez. Bere praktika ukitu omen zuen pilotak, eta berriz jokatu behar izan genuen. Azkenean galdu egin genuen set hura, eta beste biak irabazi behar izan genituen txapelideta lortzeko. Izugarria da alde psikologikoak daukan garrantzia.

- **Irabazteko helburuarekin joan zineten Kolonbiara?**

Ni nahiko beldurtuta joan nintzen, baina Patri oso animatuta zegoen. Beno, horrelakoak gara biak berez (barreak). 2012an Irlandako Munduko Txapelideta aritu nintzen 15 urterekin eta, inolaz ere, ez nuen pentsatzen bigarren postua eskuratuko nuenik. 4.000 pilotari zeuden bertan eta kaosa zen, demaseko dimentsioa zeukan. Orduz geroztik, One Wall modalitatea lantzen hasi dira Valentzian eta nik, ordea, ez dut ezer jokatu. Kolonbian egurra emango zigutela pentsatzen nuen, baina finalerdietan ezustean galdu zuten Mexikoren aurka eta azkenean gu txapelidun! Finala Valentziaren aurka jokatuz gero, azpitxapelidun geratuko ginatekeen ia ziur. Ondo irten zitzaigun dena, baina ez genuen espero.

- **Moduren batean prestatu duzue txapelideta?**

Ez (barreak). Kolonbiara joan baino hilabete lehenago deitu ninduten! Ikasketak direla-eta hiru orduz entrenatu dut guztira. Kontua da nahiko motibatuta joan garela Kolonbiara, Euskal Herriko selekzioaren izenean gindoazen lehen aldian zela-

ko. Harro erakusten genuen geure kamiseta.

- **Kolonbian turismoa egiteko aukera izan zenuten?**

Hamar egun egon ginen han eta hiru egunetan eduki genuen tarte bat libre. Hango eta hemengo alderatuta ez dago hainbeste ezberdintasunik. Hasieran bai da ikusgarria. Autobusak-eta, adibidez, koloretuak dira eta oso apainduta daude. Hango mendiak hemengoak baino ikusgarriagoak dira, berde-berdeak. Pobrezia ikusten dela esaten ziguten, baina hemen kaka bera daukagu, kontua da oso ondo disimulatzen dugula. Han gordinagoa da. Nostalgia pixka bat sortzen zidan hango gizartea ikusteak, orain dela hainbat urte hemen zegoenaren antzekoa dela uste dudalako. Hurbilak dira, taldekoak, daukaten gutxia ematen dizute... eta lehen hemen horrela zen, baina galdu egin da.

- **Zure bigarren aldian izan da Mundial batean. Igarri duzu ezberdintasunik?**

Oraingoa Kolonbian izanda ere, ikusgarriagoa iruditu zitzaidan Irlandan bizitakoak. Askoz ere jende gehiago egon zen han eta, gainera, 15 urte besterik ez nituen, beraz, denak harrizten ninduen gehiago. Taldearekin, bestalde, oso ondo moldatu naiz Irlandan eta Kolonbian, hori izan da bi txapelidetakoz gauzarik positiboena. Jokatzeko ez genuenean euskal selekzioa beste kideen partiduak ikustera joaten ginen, eta eurak gure neurketak ikustera ere, eta horrek asko laguntzen du. Kolonbiakoan aurka jokatu behar genuenean harmailak jende zaratsuz betetzen ziren, beraz, lagungarria zen gure taldekideak animatzen egotea.

- **Noiztik zabilta palan?**



## “Ez gara palan egiteagatik bizi eta, emakumeak izanda, gauzak zailak izaten ditugu berez”

4 urte nituenetik ibili naiz frontoi kontuetan. Zazpi urte zaharragoa den neba daukat eta bera frontoian aritu da txikitatik. Nik berak egiten zuena egin nahi nuen eta horrela hasi nintzen. 14 urte egin arte esku pilotan aritu nintzen, eta gero palari ekin nion. Koadrilako neskek ere animatu ziren eta eurekin ibiltzen nintzen, baina 16 urterekin lehen mailara pasatu ninduten. Nire adinekoeekin jokatzeko jarraitu nahi nuen, nire haurtzaroz gozatu, baina tira. Ez zen nire aukera izan. Ez naiz batere lehiakorra, ondo pasatzeko jokatzeko dut palan. Gustura ez banabil, utzi egingo dut eta kitto!

### - Momentuz, gustura zaude?

Momentuak daude. Atzean lehia handia dago, lan handia, eta matxismoa. Erreta amaitzen duzu askotan. Gure artean ere oso lehiakorrak dira asko eta kritikatu egiten zaituzte, zapaldu egiten zaituzte irabaztearren. Momentu zikinak daude. Ez gara palan egiteagatik bizi, zaletasuna da eta emakumeak izanda, gauzak zailak izan

ten ditugu gainera; hortaz, ez dut ulertzen zikin aritze hori. Batzuetan dena pikutara bidaltzeko gogoia izaten dut. Jokatzeko jarraitzea, baina beste maila apalago batean, lagunekin. Baina tira, ez dut laga! (barreak) Gurasoek jarraitzeko animatzen naute beti, eurek asko gozatzen dutelako eta eurentzat karga emozional handia delako.

### - Zein txapelketa jokatzeko dituzu orokorrean?

Irailetik abendura ezker horman jokatzeko dugu, trinketean ere aritzen naiz eta urtean pare bat aldiz esku pilotan ere egiten dut. Bestetik, raketistekin ere hasi naiz. Eurek ez daukate egutegirik, euren kabuz ari dira, federaziotik kanpo. Jaialdiak eskaintzen ditugu eta interesa duten tokietan ikustaldiak ematen egoten gara. Sasoi batean arrakasta handia izan zuten raketistek eta euren legatua berreskuratzen gabiltza. Lehengo emakumeen raketekin gabiz jokatzeko eta apurten zaizkigunean ez dakit zer egingo dugun. Raketista Profesiona-



lak taldeak lan handia egiten ari da.

### - Palan ari zaretenok ezetz esan duzu, baina lehengo raketistak bai bizi ziren jardun horretaz.

Bide bat badago: lehengo raketistek ezarri zutena da. Pala eta trinketean ez dago zereginik, federazio kontuagatik. Jaialdi eta ikustaldietan diru pixka bat irabazi dezakezu, baina bestela ez. Raketistekin dokumentala, erakusketa eta partiduak eskaintzen ditugu, hori da saltzen dugun paketea. Raketistekin jokatzeko dudanean kilometrajea ordainduta daukadala dakit, ziur. Hau ez dago federazio eta horrelakoei kutsatuta.

### - Matxismo handia bizi da kirol honetan?

Bai, izaugarria! Oso gutxi landu da arlo hau. Neska asko

kritikak egiten ditugu, baina gero men egiten dugu, eta horrela ez dago arazo honekin amaitzerik. Zure burua saltzen duzu Mundiala jokatzeko.

### - Eta zuen kasuan?

Gure kasuan ez, baina Espainiako Federazioan bai. Nik Espainiako selekzioari uko egin nion hainbat gauza gertatu zirelako.


### - Zein erronka daukazu hemendik aurrera?

Batetik, karrera ikastea. Kirolari dagokionean, trinketean jarraituko dut, baina ezker horman jokatzeari utziko diot. Raketan arituko naiz batez ere hemendik aurrera. Demaseko lana egin dute taldekoek eta zortzi neska bakarrik gaude. Hasiberriak izanda, hainbat tokitatik deitu digute eta hori oso polita da. Bidea dago egiteko.

Ekhi Velar

**DROGETEN** TITURRI  
**Publizitatea:**  
 943 179350  
 688 632876  
 drogeten@gmail.com

Komunitateak  
**San Pelayo**  
 Aholkularitza  
 juridikoa  
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Hamburguesería  
**TITANIC**  
  
 Pintxo dastaketa  
 poteoan  
 Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELKETAN  
**BIZKAIKO**  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLELU 3-943170563  
 ERMUA



**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tz-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

# Iratxe Uribelarrea eta Igone Amesti, "4kote" taldeen abeslari

**Musika eta abesbatzekin lotzen doguz bixak eta, herriko 3 koruen zuzendaritziaz aparte, "4kote" izeneko ahots-taldien kantatzen dabe. Eurokin egon gara honen eta Mallabiko abesbatzon gaiñien berba eitteko.**

**- Zer da "4kote"?**

**Iratxe.** Abesteko batu garen taldetxo bat, hasieran 4 eta oin 5 lagunez osatutakue. 2011an hasi giñen alkartzen eta Agurtzane Mentxaka dogu zuzendari.

**- Ze errepertorio mota dozue?**

**Ir.** Egin dogu klasikue, bole-ruek, euskal kantak... eta oin hasi gara jazz estiluakin.

**- Musika koral modure ez da ba aurkezten taldie?**

**Igone.** Ez, ahots-taldie da korala baiño. Iratxek esan daben moduen, genero ezberdinek interpretatzen doguz. Bostok batera kantatziaz gain, gure artien taldekatze ezberdinek eitten doguz duoak, triuek eta kontzertu batzutan aria batzuk bakarka be tartekatuz.

**Ir.** Boleruek, biolontxelo talde batekin kantau izan doguz eta saxofoie zein pianue be lagun euki doguz.

**- Ze abots-tesiturakuek zarie?**

**Ir.** Sopranuek die Eburne eta Bidane, mezzosopranue Igone eta kontraltuek Josune eta bixok.

**- Kapitain asko eta marinela gitxi...**

**Ig.** Ez, kapitain bakarra: Agurtzane. Guztion bakarkako

abots-teknikako irakasle be bada eta berak esaten dosku zer aldatu edo zer zuzendu.

**Ir.** Gañera kontzertuetan bera ez dago gure erdixen zuzentzen eta jendaurrien gu bakarrik azaltzen gara, zuzeneko zuzendaritza horrek eskintzen dabena banan-banakuan landuta dakagulako. Baiña egon badago, horixe bai dauala, errepertorixue be berak aukeratutakue izaten da eta!

**- Laukote izatetik boskote izatera pasau zarie...**

**Ig.** Bai, baiña ondiñoek ez dogu bostok kontzerturik eskeiñi, nahiz eta boskote moduan prestatzen jarraitu. Ni ordezkapenak eitten hasi nintzan, baiña ondiñoek ez nabe kalera-tu eta juateko asmorik be ez dakadanez...! Ja, ja, ja, ja!

**Ir.** Ez daka aldeteko aukerarik, ez dotsegu emoten-eta. Ja, ja, ja, ja!

**- Zer eskintzen dotsue taldiek?**

**Ir.** Gure artekue oso politte da eta astearteroko saio hori, hor dago. Han nauanien ez dakt burue beste ezerretan, askatasun haundixe emoten dos-te. Gainera oin hasi garen estilo barrixe asko gusteten jata, erritmo eta melodia piskat gataxuekin. Mallabixen zuzendu



eitten dogu eta orduan beste gauza batzutura gagoz. Kantatziek eta zuzentziet gauza desberdiñek aportatzen dabe.

**Ig.** Ikasteko eta berori praktikan jartzeko tartie eskintziaz aparte, abesteko premiñie asetzen dogu bertan.

**- Mallabixen bixok koruzuzendari?**

**Ir.** Bai, Igone umietaz kargutzen da Lagun Artean abesbatzakin eta ni helduetaz, Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin.

**- Zeinek elikatzen dau zein, 4kotek momentu baten apor-**

**tau lekixoz zeozer beste hiru koruei?**

**Ig.** Bide desberdiñetatik doiaz, talde eta estilo ezberdinek die. Jasokunde eta Mendibilek abotsezka abesten dabe eta umiekin nik momentuz ondiñoek abots bakarrakin dihardut. Eurentzat euskal kantuek edo hizkuntza ezberdinetakuek aukeratzten dittut, baiña beti kantu erritmikuek, melodia errezekuek... Gehixuek Inteneten edo han hemena topautako kantuek die; iñoiz geuk Jasokunden abestutakoren bat, baiña erraztute,

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



*Oh la lá!*

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale beheka, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefonoa: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com





abots batera eta umien tonure egokittute. Umiok kantureko erreztasun haundixe deukie gero! Niri ez jata pasau umiekin abesti bat ikasi, ensaiatu eta laga bihar izatie ez dalako ondo urten.

Ir. Neri bai, ostera. Beste zailtasun batzuk dakaz abotska kantatziek. Esate baterako, Amurizaren "Mendian gora" abestixe ez genduan lortu aurrera etaratzie. Armonizaziño bat dago eindde, haxe hartu genduen, baiña ezin kolorerik emon. Kantu gatxa da: lau abotsetara, melodikoki be zeresanakin, erritmo kontuetan gora-

beheratsue...Pendiente dakagu eta ia oin lortzen dogun!

**- Zer dakazue esku artien?**

Ir. Jasokundek aurtan 25 urte eitten dauz eta maietza-ekaineko Mallabiko Hamabostaldixen izengo da ospakizune. Urtero eitten dogu kontzertu bat eta aurtengue berezituauae izen biher! Momentu honetan horretxeri begire gaoz.

**- Lagun Artean-eko txikixek be parte hartuko dabe, ezta?**

Ig. Bai, zelan ez! Horretxek die kanterie, etorkizune! Horregaittik hasi giñen hasi be: ikusten gendun gure abesba-

tzien ez zala hasten jende barrixe eta hortxe sortu zan ideie, umiekin hastiana, eurek be aukerie eukitteko guk bizi izan gendune bizitzeko. Helburue ez zan hiru abotsetara kantatzie ezta musika koraleko taldie sortzie; helburue umiek kantatzie da, kantuaz disfrutatzie, oiñarrizko ezagutza batzuk jasotzie, euren abotsetan konfixantzie eukitzie, konplejuek kentzie, soltatzie...

**- Zenbat ume dagoz?**

Ig. 15. Ikasturte honetan Santa Zezilia egunien abestu genduen eta Gabonetan gero; baserrixetatik ibilli giñen Ga-

bon-batzen eta ederto pasau genduen.

**- Musikalki itzelezko aberastasune deuke Mallabixek...**

Ir. Bai, herri txikixe da eta nik koruen aldetik ikusten dot, hiru mantentzie eta hainbeste urtetan ez da kontu erretza. Musikatik haratago zeozer gehixao eskintzen dabelako da, kantatzie gustatzetik aparte lagunarte bat, alkartzeko atxakixe bat emoten dabelako.

**- Eta zuek, lagunarte baten zer kantauko zendueke?**

Ir. Niri "Koruen kantatzen dozu eta kantaizu zeozer" esaten dostienien, mututu eitten naz. Abotsetara kantatzen dogu eta nik oin hotzien ezin dotsut ezer kantau, ez deuke zentsurik nik abots bakarraz kantatzie hamen.

Ig. Niri ez jata gustatzen hola hotzien kantatzeko eskatzie, eta konpromiso modure bizi dot. Emoten dau gaiñera kantatzen dozulako ez dakazula lotsarik eta horrek be badagoz. Bazkaloste baten gehixa disfrutatzen dot danekin batera kantuen eitten bakarka baino. Lagunok batzen garenien, "Dolu gabe" gustatzen jaku kantatzie.

Ir. Egixe esateko, plazer bat da guretzat kantatzie!

Ig. Bai, itzelien disfrutatzen dogu!

Estibalitz González



<ul style="list-style-type: none"> <li>- Toldoak</li> <li>- Ostalaritzarako muntaiak</li> <li>- Pertsianak</li> <li>- Instalakuntzak eta konponketak</li> <li>- Motorizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Manparak</li> <li>- Segurtasun pertsianak</li> <li>- Pertsiana dekoratiboak</li> <li>- Estoreak</li> <li>- Eltxo-sareak</li> </ul>
Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)	Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com





PROTECCION LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

**Goienkale kalea (Ermua)**  
**Tel: 943 172 454**  
 sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak



Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

---

Izarra Centre eraikina  
 Tel: 846080080  
 Mugikorra: 688885435  
 zuzenbidekontuak@gmail.com



**CAPRI**  
**PIZZERIA**  
 943 03 33 15

Patxo Telleria, aktorea:

# “Hitzek mugitzen ez dituzten tekla batzuk mugitzen ditu musikak”

Euskal musikaren historia bildu eta istorioa “eroa” kontatuko dute Mikel Martinez eta Patxo Telleriak otsailaren 2an Ermua Antzokian. ‘Ez dok hiru: euskal musikaren benetako istorioa’ ekarriko dute abestirik abesti publikoaren barrea eragin eta ordu eta erdi zoragarria pasarazteko. Antzerkia ikusteko sarrera bi eskuratu nahi badituzu, Euskal Birusaren Facebook orrialdean daukazu aukera.

- *‘Ez dok hiru: euskal musikaren benetako istorioa’ ekarriko duzue Ermura. Gezurra esan digute orain arte?*

Guk gure benetako istorioa kontatzen dugu. Oso istorio berezia da eta ziur aski iker-tzaileek ez dute ontzat hartuko, baina guk benetakotzat saltzen dugu.

- *Zer eskainiko duzue antzezlanean?*

Euskal musikaren historiari errepaso eroa egingo diogu. Neolitikokoan hasiko gara historiari errepasoa egiten, gaur eguneraino. Gauza batzuk kontatu eta gehienak asmatu egiten ditugu. Erregistro historikorik ez dagoenez, imajinazioa erabiltzen dugu. Helburu bakar eta nagusia da jendeak ondo pasatzea eta gurekin barre egitea.

- *Antzezteaz gain, abesten ere ikusiko zaituztegu?*

Musikari eta aktoreak antzezten eta kantatzen ari gara denbora guztian. Denetarik egiten dugu.

- *Nork jarriko du musika?*

Taula gainean bost pertsona gaude. Mikel eta biok aktore moduan arituko gara, eta gero beste hiru partaide daude, aktore eta batez ere musikariak direnak. Gehienetan musikaren ardura euren esku egongo da, baina guk ere kantatzen eta zerbait jotzen dugu.

- *Beraz, festa handia izango duzue eszenatoki gainean. Publikoa ere abesten jarriko duzue?*

Publikoa isilik egongo da, baldin eta isilik egon nahi badu; baina abestu nahi badu, kantatzeko aukera izango du. Ez dugu planteatzen publikoak abesteko eszena berezirik. Guk eskaini ahal diogun gauzarik garrantzitsuena gure antzerkia da eta horretan zentratzen gara. Jendearen parte-hartzea sekundarioa da. Guk kobratzen dugu eta publikoak ordaindu egiten du, eta printzipioz gu gatoz lan egitera. Jendeak kantatu nahi badu, izango du kantatzeko aukera, eta askotan gurekin kantatzen du.



- *Martxotik zabiltzate biran. Pozik ikuskizunak izan duen harrerarekin?*

Oso pozik! Hasierako unetik publikoak oso ondo hartu du ikuskizuna eta oso harrera beroa izan du. Estreinatua genuenetik gelditu gabe gabiltza antzezten eta txaloak jasotzen.

- *Patxo, zuk sortu duzu ikuskizuna. Nolako lana dago antzezlan bat sortzearen atzean?*

Gauza sinplea den irudia eman behar da, nahiz eta horren azpian lan handia egon. Ematen du horrelako lanak egiteko lan gutxiago behar dela, komediak direlako, baina lan mardula dago atzean. Arakatzeko lan handia dago, baina hori ez da atzeman behar, ikusleak gauza arin bat ikusi behar du.

- *Euskal musikak euskal gizartea definitzeko balio du?*

Definitzeko balio duela esatea asko da, baina islatzeko balio duela bai esango nuke. Hitzik gabe gauzak esateko ahalmena dauka musikak, sentimenduak adierazteko botea. Hitzek mugitzen ez dituzten tekla batzuk mugitzen ditu musikak.

- *Badago zuri pertsonalki markatu zaituen abeslari edo abestirik?*

Denok daukagu gure kuttunak, baina zentzu horretan ez naiz oso orijinala. Gehien estimatzen ditudan musikariak jende askok gogoan dituenak dira. Gure ezinbesteko erreferentea Mikel Laboa da eta hori da batez ere gehien estimatzen dudana. Beste neurri batean asko estimatzen ditut Xabier Lete eta Ruper Ordorika, besteak beste. Nire belaunaldiko musikariek markatu ninduten, eta ziur aski ikusle gazteagoek beste musikari batzuek dituzte buruan eta gogoan.

Ekhi Velar





**Egindako  
lanaren etekina ikusi eta  
harro sentitzen da bat.**

*Marta Calvo Fernandez*  
Gasteiz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ORONA IDEO · URTARRILAK 27**  
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI · OTSAILAK 1**  
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE · OTSAILAK 3**  
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**BIDASOA · URTARRILAK 27**  
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**OÑATI · OTSAILAK 1**  
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · OTSAILAK 8**  
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORITATZA · OTSAILAK 17**  
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · OTSAILAK 17**  
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

**DONOSTIA · OTSAILAK 15**  
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO  
ZAREIA  
JAKINARAZI!



# MMT, azeleragailua guztiz zapalduz

Asier Araiztegi mallabitarrak beti izan du gustuko kotxeen mundua. “Betri izan dut lasterketetan aritzeko asmoa, baina nahiko garestia zela pentsatzen nuen eta inoiz ez nuela egingo”. Pasioa duzunean, ordea, ezinezkoak posible bihurtzen dira, eta Izaskun Badiolaren eskutik eman zuen ametsa egi bihurtzeko berebiziko pausoa. “Lasterketako autoak alkatatu ahal zirela jakin genuen eta horrela hasteko animatu ninduen, probatzeko gutxienez”, dio Asierrek. Senar-emazteak hasi ziren alokairuko autoen bila eta, zenbakiak egin eta gero, ikusi zuten lasterketetan ari den kotxe merke bat erosi ahal izateko behar zutena kotxe baten alokairua ordaintzeko behar zuten bestekoa zela. Beraz, apustu handia egin eta kotxea erostea erabaki zuten, Ford Fiesta bat.

**A**pustu handia izanik, bilaketa ere zorrotza izan zen. Han eta hemen ibili ziren kotxeak begiratzen, lagun eta mekanikoen artean galdezka aritu ziren eta, azkenean, euren asmoetara egokitzen zen ibilgailua erosi zuten. “Nahiko merke ikusi genuen eta gure ideiarekin bat egiten zuen: motor aldetik seriekoa da, eta

abiadura-kaxa, anti-iraulketa barra eta indargetzaile onak ditu”. Gainera, harro daude: “Euskal Herrian ez dago horrelako beste kotxerik!”.

Asier Araiztegi eta Izaskun Badiola 2016an hasi ziren karreretan lehiatzen, lehen gidari eta bigarren pilotu-lagun moduan. Gero, laguntza eskaintzeko asmoz, Oier Zubiri eta Unai Txurru-



kak eurekin bat egin zuten, bata arlo elektronikoa eta bestea manager lanetan aritzeko. Horrela sortu zen Mallabia Motorsport Taldea (MMT). Gaur egun lau kide hauek osatzen dute taldea, baina 2017an Munduko Rally Txapelketa (World Rally Car) irabazi zuen M-Sport taldean mekaniko lanetan ari den Beñat Pildain ere eurekin ibili da aurretik.

egiten dira normalean”, argitzen du Asierrek.

MMT-ren hasiera ez zen gozoa izan. “Hasi eta berehala kolpe bat izan genuen”. Lehenengo bide-tarte luzean istripua izateak atsekabetu egin zituen MMT-ko kideak. “Kotxea erosten diru asko gastatu eta taldekideek lan handia egin ostean hori gertatzea gaitza izan zen”, aitortzen du Asierrek. “Nahiz eta irabaziko ez genuela jakin, jendea begira geneukan noiz iritsiko zain, gero ospatu ahal izateko”.

Baina egun hartan ez zuten ezer ospatzeko gogorik izan. Errepideko nota batzuk gaizki hartu zituela onartzen du Asierrek. “Orduan ez genekien ondo notak nola hartzen ziren”. Aurretik ez zeukaten esperientziarik notak hartzen eta galdetzen aritu ziren. “Hasieran zaila da, testu luzeak idazten dituzki eta horrela gehiago kostatzen

## Poliki-poliki hobetzen

Euskal Herriko txapelketan rally eta rallysprintetan ari dira MMT-koak. Rallysprintetan bide tarte bat zehazten da, hiru aldiz pasatzen da lehiakide bakoitza handik eta egindako denbora onena hartzen da kontuan. Rallyetan, bestetik, hainbat bide tarte daude (Lea Artibaikoan sei dira, adibidez) eta bi aldiz pasatu behar da auto bakoitza handik. “Rallyak bi egunetan

MMTko kideak, Asier pilotua eta Izaskun pilotu-lagunaren ezkontzan



Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda



**Senén**  
1978


Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidetza 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

tzen da asimilatzea". Lehenengo aldiko kolpearen ostean, poliki-poliki hobetzen joan ziren eta euren modua bilatu zuten notak idazteko.

Izaskun ibiltzen da Asierri nota horiek lasterketetan esaten. Aurretik datorrena azaltzen dio: "kurba itxi bat, rekta luzea edo dena delakoa". Asierrek dio euskaraz hasi zirela lehenik, baina berben erdia irakurri arte ezin denez jakin nora jo behar den, 'l' eta 'd' erabiltzen dituztela 'izquierda' eta 'derecha' labur esateko. Izaskunek adierazi digu hasieran pixka bat 'berde' ikusten zuela bere burua. "Ikartuta nindoan eta mareatzeko beldurra neukan, kurba askorekin eta abiadura handian aurrera begiratu eta notak irakurri behar nituelako". Baina ez zen mareatu. Notak prestatu ahal izateko lasterketaren ibilbidetik pasatzen dira karrera egin aurretik eta, horretarako, ordutegi bat zehazten du antolakuntzak.

Kolpeak kolpe, segurtasuna bermatuta dutela diote MMT-ko kideek. "Lasterketetan

gabiltzala argi daukagu, eta edozein gauza gerta daiteke, baina segurtasun neurri guztiak hartzen ditugu". Oierrek dio mina "berdin-berdin" hartu dezakezula, baina "oso segurua" dela. "Oso zaila da istripu larria izatea", Unairen berbetan. Asierrek zorteari egokitzen dio istripu larri bat izateko aukera. "Istripuetatik ikasten da eta, edonon gertatzen den bezala, orduan ikusten dira zein neurri gehiago hartu behar diren segurtasuna hobetzeko, baina gaur egun neurri asko eta onak hartzen dira. Gu lasai gabiltza".

### Babesle bila

Aurten ez zuten lehiazten jarraitzeko asmorik. "Iazko emaitzak ez ziren bikainak izan", baina Asierren berbetan, euren baliabideak ikusita emaitza onak direla esan daiteke. Taldeko kideek jartzen dute proiektua garatzeko behar den dirua eta bultzatan ezer ez jasotzea gogorra dela aitortzen dute, baina autoekiko duten pasioa handiegia da. Lagunek jarraitzeko animoak eman zizkien eta



azeleragailua zapalduko dute aurten ere.

Martxoan hasiko dute denboraldia eta babesle bila ari dira orain. "Modu serioagoan hasteko asmoarekin gaude eta horretarako diru gehiago behar da", dio Unai. Hainbat hobekuntza egin nahi dizkiote autoari, lasterketetan ondo lehiatzeko eta helburu jakin batzuk zehazteko asmoz.

Iaz Bizkaiko onenak izan ziren euren mailan eta Euskal Herrikoan hirugarren amaitu zuten bigarrenekin berdinduta. Bost lasterketatik hirtan aritu zirela diote, euren gaitasunak nabarmenak direla erakutsiz. Aurten lasterketa guztietan aritu nahi dute, "eta ganoraz ibili". Iaz gorpil zaharrek aritu ziren, eta euria egiten zuenean "orain dela 10 urteko kubiartak" erabiltzen zituztela gogorazten du. "Ezin genuen maila horretan besteekin parez pare konpetitu", onartzen du. Beraz, gorpil berriak eta ganorazko argiak jarri nahi dizkiote autoari, "behingoz".

Taldearen inguruko txostena prestatzen ari da Unai

managerra eta, horren bitartez, euren proiektua azaldu nahi dute babesleak lortzeko helburuarekin. "Badakigu koxteen mundua zaila dela. Oso garestia dela uste du jendeak eta askok ez dute gure proposamena entzun ere egiten", aipatu digu Asierrek. Unai, gainera, kirol honek izan dezakeen konnotazio txarra jartzen du agerian. "Batzuentzat gazte makarra ganorabakoak gara eta babesa lortzeko orduan nabari da karga hori, baina irudi horri buelta ematen saiatuko gara. Gu zintzoak gara".

MMT-ko kideek ilusio handiz ekin diote proiektu honi eta ez dute etsiko euren pasioarekin jarraitu arte. Lana eta gogoia, behintzat, ez dira faltako. Proiektuarekin bat egin edo informazio gehiago nahi duenak mallabiamotorsport@gmail.com helbidera zein Facebookeko orrialdera idatzi edo 618 417 795 (Asier) deitu dezake. Euren Youtube orrialdean euren lasterketen bideoak daude ikusgai.

Ekhi Velar



**BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN**  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

**ZUK ERABAKI**

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

**Horacio Decoración**  
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

# Bost urte Tasio eta Sabinorekin

Drogeteniturrri aldizkarian umorea jartzen ibili dira Tasio eta Sabino azken bost urteotan. Herriko kontuen inguruan euren iritzia eman eta pentsarazi gaituzte sarritan, eta oraindik ez dute ahoa ixteko asmorik. Hori behintzat esan digu Antonio J. Hernándezek (Cuco), Tasio eta Sabinoren sortzaileak. Zorrozkailua prest dauka bere arkatzari eta beste hainbat konturi punta ateratzeko.

**C**ucoren ama da Tasio eta Sabinoren egileak marrazketarekiko duen zaletasunaren erruduna. “Aitxixaren astoaren marrazkiak egiten zituen eta ordutik nabil marrazten. Bizitza osoan marraztu dudala esango nuke”. Astoekin hasi eta Tasio eta Sabino moduko astakiloekin amaitu du, baina bidean marrazki ugari egin eta hainbat liburu irakurri ditu.

“Garrantzitsuena marraztea da eta, egindakoa gustatzen ez bazaizu, berriz egin”.

Txoferra da ogibidez, “ez du marrazketarekin zerikusirik”. Gidatzen ari denean ezin ditu begiak errepidetik kendu, baina egunean zehar momentu batzuk topatzen ditu bere buruan dituen irudiak koadernoan islatzeko. “Trafikoaren arabera 10 edo 15 minutu libre izaten ditut nire txanda berriz hasi arte”, eta orduan koadernoan atera eta zirriborroak egiten ditu.

### Aldizkarian umore bila

Cuco aspalditik da Drogeteniturrri aldizkariaren irakurlea, baina zerbait falta zi-



Cuco marrazkilaria Tasio eta Sabinoren sortzailea

tzaiola uste zuen. “Bineta edo txiste bat faltan botatzen nuen aldizkaria esku artean hartzen nuenean”. Bada, berak marrazteko zaletasuna izanik, aldizkariko arduradunekin berba egin eta bere burua aurkeztu zuen bineta horiek egiteko. “Nire asmoa aipatu nien eta eurak esan zidaten inoiz ez zutela horrelako proposamenik jaso, baina ideia ona zela”. Aldizkariaren onspena jaso ostean hainbat buelta eman zizkion buruari, “eta hor dago emaitza”.

Tasio eta Sabinok pertsona helduen itxura daukate, adin nagusikoak direla esan daite-

ke, baina ia ia jaioberriak dira, bost urte besterik ez dituzte. “Drogeteniturrirako apropos sortutako pertsonaiak dira, horretarako jaiotzen dira”. Pertsonaia biak irudikatu eta izaera bat ezartzeko, herriko txikiteroak izan ziren Cucoren inspirazioa. “Herriko egoerakin kritikoak diren bi txikitero jator egitea pentsatu nuen”. Bada, bai, hainbat txikito hartzen ikusi izan ditugu binetan eta kritikak ere ez dira euren ahotan falta izan!

### Pertsonalen izaera

Baina nor da nor? Cuco berak ere ez daki. “Irakurle ba-



**esanline**<sup>®</sup>

+ @ + TV +

846 080 010  
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua  
esanline.es



**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527



koitzak pertsonaia bakoitza nahi duen moduan izendatzen duela pentsatzea gustatzen zait”. Horrela, denok ari gara zuzen. “Denoi gertatu zaigun egoera bat datorkit burura. Aurretik ahotsa entzunda edo beste batek aipatuta bakarrik ezagutzen zenuen jendea zuzenean ezagutzen duzunean bezala da. Zuretzat bere irudia ez da etortzen bat bere izenarekin!”.

Ez daki edo ez du argitzen zein den Tasio eta zein Sabino, baina pertsonaia bakoitzaren izaerak ondo definitzen ditu.

“Bata ipurterrea da eta ez da aldaketak egitearen oso laguna; eta bestea alaiagoa da, pentsaera irekiagokoa. Hala ere, biak dira zintzoak, lasaiak, ironikoak eta sarkastikoak”. Eta bost urtetan ez dira aldatu. “Hasieran bezala jarraitzen dutela pentsatzen dut”.

**Bineta sortzeko prozesua**

Hilero gai bat jorratzen du txikitero pareak. Lehen ‘Kaleko inkesta’ atalarekin zerikusia zuen kontu baten inguruan euren ikuspegia ematen zuten,


eta orain aldizkarian lantzen den gai baten inguruan aritzen dira euren ikuspegia ematen. Hilabete bakoitzean aldizkarian landuko diren gaien berri izaten duenean buruari bueltak ematen hasten da Cuco, “gai horren inguruan zer pentsatzen duen galdetzen diot jendeari”. Hortik abiatuta, istorioa sortu, pertsonaiak non eta nola jarri, eta esango dutena zehazten hasten da marrazkilaria. “Batzuk berehala ikusten ditut eta segidan etortzen zait irudia burura, baina beste batzuetan ez dago modurik!”. Zentzu horretan gaiak

garrantzia handia dauka Cuco-rentzat. “Gaia mamitsua izan behar da”. Hortik aurrera, bere arkatzak magia egiten du. “Bizitza asko ematen dit bineta egiteak”, aitortzen digu.

Tasio eta Sabinok istorio ugari ekarri dizkigute bost urte hauetan, baina Cuco-rentzat ez du bata bestearengandik gailentzen. “Baten bat esatearren San Martin azokakoak nabarmenduko nituzke. Askok gustatzen zaizkit”. Lagun pareak ere ondo pasako du Sanmartinetan, ziur!

Drogeteniturririko binetaz gain Cucok ez dauka marrazketako beste proiekturik martxan. Erretiratu egin diren bi lankideen karikatidak egin zituen berriki, “eta barre handiak egin genituen afarian”. Aurretik, denetarik egiten zuten pertsonaia batekin hiztegi antzeko bat egin zuten. “Irudia akzioarekin erlaxionatzea zen ideia horren teoria, nahi zenuen hizkuntzan. Nik euskaraz egin nuen, baina hor geratu zen proiektu hori”. Tasio eta Sabino, ordea, luze-rako izango ditugu gure artean. “Arkata eta papera dauzkagun bitartean behintzat”.

Ekhi Velaz



**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

---

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

# ALBERTO ARGINZONIZ

**- Zergatik jarri zenion 'Argintxu' izena dendari?**

Arginzoniz eta txutxerriak hitzen bateraketa da. 'Argintxu' jarri behar nion, baina denda antolatu zuenak 'Argintxu' jar-tzea gomendatu zidan, eta horrela!

**- Eta logoa?**

Nik egin nuen. Etxean bilera egin eta segidan erabaki genuen. Iratxo bat marraztu nuen.

**- Zein gozokik dauka arrakasta gehien bezeroen artean?**

Denetarik jaten du jendeak. Bakoitzak bere gustuak ditu. Helduek, adibidez, erregaliza jaten dute asko. Gozokiarena mundu bat da. Asko ikasi dut bi urtetan!

**- Zuri gozokiak gustatzen zaizkizu?**

Bai, baina orain ez hainbeste. Gozoki artean egonda, egu-nero ikusten ditut eta ez daukat hainbeste gogo jateko. Probatzen ditut probatu egin behar direlako, baina jendeari ematen saiatzen naiz eurek probatzeko. Bestela 100 kilo hartuko ditut! (barreak).

**- Zein da gozoki-denda edukitzeak daukan gauzarik onena?**

Ume bihurtu naizela berriz ere, ume bihurria (barreak). Mekanikaren mundutik hona etortzea polita izan da. Ez daukat atsedunik, baina jendea ezagutzen dut eta ederra da. Barre egiten dut umeekin.

**- Zertan ari zinen denda zabaldu aurretik?**

Mekanikoa nintzen. 17 urterekin Eibarko Armeria Eskola



**Urte askoan zehar mekaniko moduan lanean ibili ostean langabezia geratu zen Alberto Arginzoniz, baina berak esaten duen bezala beti aurrera egiten duen gizona da eta 'Argintxu' gozoki-denda ireki zuen Erdikokalen. Mekanikaren mundutik gozokienera egin du jauzi eta pozik dago hartutako erabakiarekin. Hori bai, batzuetan zaila egiten zaio gozokiak jatearen tentaziori uko egitea.**

utzi eta lanean hasi nintzen. Aitak motozerrak eta sega-makinak saltzen zituen beste bi kiderekin, eta eurekin hasi nintzen. Erabaki txarra izan zen ikasteari uztea. Ez nintzen ton-toa, baina alperra bai. 20 urteren ostean, Alfatik deitu ninduten eta 16 urte egin nitu- han, langabezia geratu arte.

**- Nola amaitu zenuen dendan?**

Hau ez zen nire lehen aukera, baina emaztea eta biok, lokal honen parean geundela, itxita zegoela ikusi genuen, eta berak animatu ninduen gozoki-denda zabaltzera. "Asteburuetan lan egitea axola zaizu?", galdetu zi-

dan, eta ez zaidanez axola, denda ireki nuen.

**- Pozik zaude erabaki horrekin?**

Bai! Lan egitea inori ez zaio gustatzen (barreak), baina zerbait egin behar da eta gustura nago horrela.

**- Badaukazu zaletasunik?**

Futbola gustatzen zait. Lagunekin jokatzeko ibili izan naiz eta Athletic-zale amorratua naiz.

**- Biziorik?**

Ez.

**- Bizitako momentu bat?**

Bi aldiz jaio naizela diot beti, 4 urterekin txakur batek buruan haginka egin zidala-ko.

**- Kolore bat?**

Urdina eta gorria erabiltzen ditut, baina ez daukat kolore gustuko-rik. Hortera hutsa naizela esaten didate etxean, gusturik ez daukadal- a.

**- Bidaia bat?**

Tailandiara egin genuen ezkonbidaia eta Ingalaterrara joan ginene-koa. Bost egun joan ginen Ingalaterrara ar-bera bisitatzera eta bueltatzeko gogo handiarekin geratu nintzen. Hegazkinean muntatuz gero toki askotara joango nintzateke. Zeelanda Berrira, adibidez.

**- Akats bat?**

Inor ez da perfektua. Eskola uztea akatsa izan zen, adibidez. Inoiz hanka ez baduzu sartzen, kontu txarra. Beti ikasten duzu zerbait. Nik beti diot egindakoa ondo egiten dudala, eta ez da horrela.

Ekhi Velar

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**OSASUNA \* ESTETIKA EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

**KRABI**

Ileapaindegia Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



## Hartza eta koko jantziak otsailaren 9an



Inauteriak iaz baino lehenago ospatuko dira aurten eta, urtero bezala, Hartzaren Eguna egingo da Eguen Zuri biharamunean, otsailaren 9an. Ohiturari sendo eusten diote antolatzaileek, baina hainbat berritasun prestatu dituzte aurtengo ediziorako. Hori bai, inauterietako moztorroak jantzeko deialdia luzatu dute betiko moduan, jai-giroa eta kolorea falta ez dadin.

Eguen Zuri igaro ostean ikusi ohi da hartza herriko kaleetan, eta aurten 18:30etan hasiko da kalejira plazan.

Hainbat umek kateatuta eramango dute plantigradoa eta kalejira amaitezakoan ogitarkeoak banatuko dira. “100 ‘preñau’ gehiago banatuko ditugu aurten”, adierazi digute antolatzaileek. Kaletik kalera Hartzaren Eguneke kopla famatuak abestuko ditu jendeak, baina aurten fandango erritmora egokitu dituzte kopla horiek antolatzaileek. Gainera, Txindurri Dantza Taldeak dantza berri bat prestatu du egun berezi honetarako, “eta hartzaren paperari ikusgarritasun handiagoa emango zaio”. Bestetik, arratsaldean egindako ekintzak bideoan grabatuko dira, egun berezi honen oroitzapena beti fresko gera dadin.

Euskal Birusak Elkartek, Anaitasuna Ikastolak, Eskolabarri Eskolak, Kaltxango AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak antolatzen dute Hartzaren Eguna, Laboral Kutxaren eta Ermuko Udalaren babesarekin.

## DANOBATGROUPEk antolatutako lehiaketaren irabazleak

Beste urte batez DANOBATGROUPEk ‘Euskara aldean, erabili lanean’ lemapean kooperatibak dituen herrietara zabaldu duen lehiaketa parte hartze zabala lortu da, eta Elgoibarko Esther Lizarriturri eta Saioa Arrieta azkoitiarra izan dira asteburuko egonaldia irabazi dutenak nekazalturismoko etxe batean. Ariketa web bidez osatzekoa izan da eta bide batez webgunea ezagutu eta Tailerreko Hiztegi Teknikoan kontsultak egin behar izan dira erantzuteko. DANOBATGROUPEk konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenean alde eginda. Bide horretan pausoak gero eta sendoago eman nahia euskararekiko konpromiso sendoa izango du taldeak aurrera begira ere: Euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean, eta abar.



## JESUS CIMARRO ARTE ESZENIKOEN AKADEMIAREN PRESIDENTE BERRIA

Jesus Cimarro antzerki-ekoizle ermuarra Espainiako Arte Eszenikoen Akademiaren presidentea berria izendatu dute eta lau urtez egongo da karguan. Akademiako lehen presidenteordea zen Cimarro eta, Jose Luis Alonso de Santosek presidentetza utziko zuela adieraztean, bera ordezkatzeko proposamena jaso zuen ermuarrak. Orain arte egindako lanari jarraipena emateko eta proiektu honen “bigarren solairua” eraikitzeko asmoa erakutsi du Cimarrok.

500 kidek osatzen dute Akademiaren asanblada eta aho batez onartu zuten Cimarroren hautagaitza. Gainera, lehengo zuzendari-tzaren erdiak jarraituko du, tartean Cayetana Guillen Cuervo eta Antonio Resines aktoreek.



**MONTSE PAMPÍN GARCÍA**  
(2017ko abenduaren 23an)

*Nahiz eta gure artetik joan,  
beti izango zaitugu gogoan.*

**Auzo Lagun Koop. E.-ko lagunak**



# Eurengan zentratuta zaintzen ditugu pertsona nagusiak?

**G**aldera hori egiten ari dira asistentzia-baliabideetan, mendekotasuna duten pertsonen zaintzari dagokionean. Horrek esan nahi du zaindu beharreko pertsonaren arabera diseinatu behar direla zaintza-lanen prozedimenduak, pertsona zainduen duintasuna errespetatuz (gizakia gizaki izateagatik berez atxikitako balioa da hau, inork emandako gaitasuna).

Bere iritzi eta balioak errespetatu behar dira. Zaintza-prozesu horretan erabakiak hartzeko orduan laguntzaile bihurtu behar dira zaintzaileak, baina asistentzia-erakundeen bisioa aldatzea eta zaindu behar den pertsona nabarmentzea dakar

guzti honek. Bere beharrak, interesak, jakin-nahiak eta nahi duen bizimodua nolakoa izatea nahi duen jakin behar da. Asistentzia- edo interbentzio-mailako lan-prozedimenduak aldatzea dakar guzti honek. Azken finean, kudeaketa eredu berria eta irmotasuna behar da hainbat hamarkadatan funtzionatu duen baina gaur egun zaharkitua dagoen lan-eredu bat aldatzeko.

Zaharra bada ere, datu hau oso aipatua da: hainbat herrialde aztertzen dituen 1997ko ikerketa batek dio Espainiako biztanleriaren %40ak lokailu-fisikoak erabiltzen dituela egunero edo ez egunero. Danimarkan %2 ingurukoa zen zifra. Gaur



*Juan Carlos Martín*

egun egoera hobetua da, baina zein neurritan?

Ahaztu ezin dugun agente bat pertsona zaintzailea da. Zaintzaileak, profesionala zein familiara izan, zaintzeko beste modu bat ezagutu behar du. Zaintzen duen pertsonaren duintasun eta balioak errespetatuz zaintzeko modua dagoela ikasi behar du. Horretarako, zaintzaile profesionalak eta familiara asko zaindu behar ditugu, formakuntza-profesionala eta laguntza emozionala eskainiz euren eginkizunak beste modua batean garatu ahal izateko. Zaintzen duen pertsona zaintzea.

“ Zaindu beharreko pertsonaren arabera diseinatu behar dira zaintza-lanen prozedimenduak ”

**arral** arral97.com

Tel.: 943 17 60 75

**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**IZASKUN TXURRUKA**

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**URRETA** **burdindenda**

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Erailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

## Gure esperientzia Symunen

San Pelayo Ikastetxeko 1. Batxilergoko eta 4º DBHko hamabost ikasle azaroaren 8tik 10era Madrilera joan ginen, Spain Youth Model of United Nations (SYMUN) parte hartzera, Nazio Batuen helburuak eztabaidatzen diren simulazio batera.

Ekintza hau Getafeko Carlos III.a Unibertsitatean antolatu zen. SYMUN ekitaldia lehenengo aldiz Espainian antolatu da, aurreko edizioetan beste herrialdeetan antolatu izan da. Guztira, 320 ikasle ginen bertan, mundu osotik etorriak: Estatu Batuak, Lituania, Suitza, Frantzia, Turkia, Alemania, Senegal eta gainontzekoak. (UNESCO, UNWOMEN, PNUMA, ACNUR...).

Ordezkarri bakoitzak herrialde baten jarrera defendatu behar zuen. Gainera, beste ordezkariekin elkartu behar ginen adostasuna lortzeko. Horretarako, tokatu zitzaigun herriari buruzko informazioa menperatu behar genuen. Egingandako lan eta aurkezpen guztiak, Nazio Batuen erara burutu ziren, hau da, bertako erantzuteko eta debateak egiteko modua mantendu zen.

Leku desberdinetako jende asko ezagutu genuen, denok batera lo egiten genuelako bertako hotel batean. Oso esperientzia ona izan zen, pertsonalki eta akademikoki, zalan-zalarik gabe errepikatuko genukeena.



## Interbiaren lehiaketan

Teknologia ikasgaiaren proiektu berri bat proposatu zien irakasleak eta gogor eta gogotsu ekin zioten lanari. Urriaren 4an hasi ziren proiektuarekin "errepideak eta paisaia hartu-eman onean" eta horren izenburupean bien arteko harreman ona islatzea izan zuten helburu.

"Guk lan hau egin dugu errepideak oso garrantzitsuak direlako, baina paisaia ere ez dugu ahaztu behar. Horregatik lan honetan paisaia eta errepideen arteko lotura egokiena egiten saiatu gara, taldeka proiektu desberdinak aurkeztuz", diote ikasleek.



## Batzar Nagusietan

Pasa den azaroaren 27an, San Pelayo Ikastetxeko LH 5-eko ikasleek, beste ikastetxe batzuetako ikasleekin batera, Bizkaiko Batzar Nagusietako pleno bat bizitzeko aukera izan zuten. Bizkaia lagungarriago bat lortzeko asmoz UNICEF-ek antolatutako umeen eskubideen aldeko "Zuen balioak, lau haizeetara" proiektuan lan egin zuten eta helburu hau lortzeko dekalogo bat sortu zuten.



Ikasleentzako bizipen ahaztezina izan zen Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentearen,

eta beste batzarkide batzuen aurrean euren lanak eta aldarrikapenak adierazi ahal izatea.

Azkenik, honelako proiektuak urtean behin bakarrik egitea eta umeen iritzia beti kontuan izatea aldarrikatu zuten San Pelayoko ikasleek.



**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

**ENKARGYAK**  
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

**Silvia**

peluquería



688819336

## MALLABIA 1955

Argazki hau 1955eko urrian atarata dago. Geria Barrenengoko Jose Manuel Ostolaza eta Fabina Sarasuaren urrezko eztaiak ospatzen.

Bertan agertzen dira: Pedro Manuel Barruetabeña, Eurne Solozabal, Martina Barruetabeña, Agustin Solozabal, Eurne Ostolaza, Dolores Barruetabeña, Jesusa Barruetabeña, Hilario Solozabal, Carmen Gerrikabeitia, Bitoria Ostolaza, Paulina Ostolaza, Juan Ostolaza, Paskual Garitagoitia, Luis Fernandez, Eusebia Ostolaza, Jose Mari Barruetabeña, Patxi Ibarra, Maria Ostolaza, Manu Ibarra, Lurdes Ostolaza, Serafina Solozabal, Simona Gerrikabeitia, Jose Antonio Ostolaza, Angela Ostolaza, Josefa Ostolaza, Ernesto Fernandez, Jose Manuel Ostolaza, Fabiana Sarasua, Agustin Ostolaza, Jose Maria Gerrikabeitia, Carmen Ostolaza, Eugenio Solozabal, Agustina Ostolaza, Angel Gerrikabeitia, Inazio Solozabal, Anastasia Ostolaza, Arantza Ibarra, Mari Asun Fernandez, Jose Agustin Fernandez, Jabier Garitagoitia, Mertxe Garitagoitia, Gloria Barruetabeña, Arrate Gerrikabeitia, Esteban Gerrikabeitia, Maria Ostolaza, JoseMiguel Ibara eta Angel Barruetabeña.



## ERMUA 1918



Orain 100 urteko Udalbatza ondoko gizonok osatzen zuten, ezkerretik eskumara begiratuta eta tente daudenetik hasita: Mateo Basterra idazkaria, Luis Urreta Aranburu, Pedro Jose Azpiri Artamendi, Casto Orbe eta Agapito Lasarte aguazila. Jarrita daude Francisco Agirregomezkorta Acha, Claudio Solozabal, Benito Aranburu "Santimaria" alkatea, Pedro María Acha Ardanza eta Saracibar forala. Udalbatzak eratzeko sistemari dagokionez, legez 25 urtetik gorakoen boto-emate unibert-sala, sufragioa, indarrean zegoen arren, praktikan ez zen bere horretan betetzen. Urte horretan Ermuan hautesle eskubidea bakarrik izan zuten alkateak, 6 zinegotzik eta zergak ordaintzen zituzten 28 herritarrek, denak gizonak, ze andrazkoak botoa emateko 1933ra arte itxaron behar izan zuten.

# Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter@arrakis.es

# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA

## Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**SALGAI**

Berogailu "Ecotermi" programagarria saltzen da. 12 elementu dauzka eta oso egoera onean dago. Telefonoa 626144098.



Urtarrilaren 25ean  
Zorixonak AITOR!!! Urtarrilaren 25ean lau urte. Musu handi bat, Amaia, guraso eta aitxitxa-amamen partez!



Abenduaren 18an  
Zorionak neska handi! Egun oso ona izan zure urtebetetze egunean eta beti bezain alai jarraitu. Lau musu handi zure familiaren partez!



Abenduaren 16an  
2 urte bete dituzu dagoeneko mutil handi. Zorionak eta patxo erraldoi bat familia guztiaren partez.



Otsailaren 5ean  
Zorionak etxeko mutil handiari! Esku osoa jada! Izugarri maite zaitugu triki! Amatxo, aitatxo eta Claudia.



Otsailaren 14an  
Zure lehenengo urtebetetzean... ZORIONAK Claudia! Pilo-pilo maite zaitugu Popi. Amatxo, aitatxo eta Lukaren partez.



Urtarrilaren 18an  
Zorionak amatxo!! Ez galdu inoiz daukazun irribarre polit hori! Maite zaitugu! Luka, Claudia eta aitatxo!!



Urtarrilaren 12an  
Zorionak sorgintxo!!!! Muxu potolo pila bat familia osoaren partez!



Otsailaren 8an  
Zorionak zure 9. Urtebetetzean aita, ama eta Aialaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: Otsailaren 14a.



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN**  
**SALMENTA ETA KONPONKETA**

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

**ZINEA**

**Hilaren 3tik 5era:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**10etik 12ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**17tik 16ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**24tik 26ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 4:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 11:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 18:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 25:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Ermua Antzokian.  
20:30etan.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 1:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 8:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 15:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 22:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Antzokian. 20:30ean.

**MUSIKA**

**Hilak 4:**  
Agata Deunaren kalejira. 18:00etatik. Orbe kardinalaren plazatik.

**Hilak 16:**  
Kontzertua: El Drogas. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

**Hilak 17:**  
Blues kontzertua: The Reverend Shawn Amos. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8 €

**ANTZERKIA**

**Hilak 2:**  
"Ez dok hiru", Tartean taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€

**Hilak 22:**  
"El mundo de la tarántula", Pablo Carbonellekin 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 3:**  
Ipuin kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

**INAUTERIAK**

**Otsailaren 8an, osteguna. Eguen Zuri.**

- 15:30ean: Oilarraren jokoa.
- 17:00etan: Diskofesta: Xaibor DJa.

**Otsailaren 9an, ostirala. Hartzaren eguna.**

- 18:00etan: Kalejira.

**Otsailaren 10ean, larunbata.**

- 12:30ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 12:30an: Kalejira: Txindurri taldea.
- 17:30ean: Umeentzako txokolatada.
- 18:00etan: Umeentzako erromeria: TTR taldea.
- 19:00ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 19:30ean: Umeentzako mozorro lehiaketa.
- 22:30ean: Kontzertua: Bombai
- 23:00etan: Dj Festa: Los 40 principales.

**Otsailaren 13an, asteartea.**

- 16:00etan: Umeentzako diskoteka.
- 18:00etan: Kale ikuskizuna: "Asmakizun asmatzaileak".
- 19:00etan: Kalejira: Ustekabe txaranga.
- 23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin.

**Ekitaldi guztiak Cardenal Orbe Plazan**

**Hilak 17:**

Ipuin kontaketa.  
17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 24:**

"Gu (Ez gaude baka-  
rrik)", Borobil Teatroaren eskutik.  
17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 4ra arte:**

Argazkiak: "Ermua Antzokia 2017". Oscar Blanco. 18:00etatik 20:00etara.

**Hilaren 5etik 18ra:**

Margoak: Udal Margo eskolako ikasleen lanak. 18:00etatik 20:00etara.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
Taberna



Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Tzikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# eskolabarri



**HURBILDU ZAITEZ GURE ESKOLA EZAGUTZERA!  
ATE IREKIAK URTARRILAK 26, 9:30ean**

**MATRIKULAZIOA**

**URTARRILAREN 29tik  
OTSAILAREN 9ra**

**KONTAKTUA**

**943 17 90 36  
matrikula@eskolabarri.com**

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hezkuntza proiektua  
Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria (IRAES) / IKT Heldutasuna / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Berriztatzaileak  
Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila  
Eskolaz Kanpoko Ekintzak/Eskolamendi /Ingelesa 3 urtetik aurrera



Mendi irteerak, kainoak, materialaren alokairua, argazkiak, bideoak, informazioa, mapak, liburuak, federatzeko tramiteak, ikastaroak, hitzaldiak ... eta jende ona benetan!

<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>

[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

ostegunero,

19:30etik 20:30era

liburutegiaren gainean

